



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/05/25

Aldundiak "dagon moduan" itziko dau 2017rako diru-sarreraren aurreikuspena, lehenengo hiruhilekoan "%10eko" hazkundera izan dauen arren

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzarako diputatuak "zuhurtziazko" mezua helarazo gura izan deutse gaur Batzarretako taldeei, diru-bilketak aurtun izango dauen bilakaeraren inguruan. Aurrekontuen aurreikuspenek %3,8ko igoera erakusten dabe 2017rako, eta urte honetako lehenengo hiru hilebeteetan igoera hori "%10ekoa" izan da. Bizkaiko Ogasunak "1.811,4 milioi euro" batu ditu urteko lehenengo hiru hilebeteetan, hau da, igazko epealdi berean baino "164,9 milioi gehiago", orduan "1.646 milioi" jaso ziran-eta, gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean emon dituan datuek erakusten dabenez.

Iruarrizagak adierazo dauenez, lehenengo hiru hilebete honeetako zenbakiek, 2016ko diru-bilketaren ebaluazioak baino "joera orekatuagoa" erakusten dabe, igazkoa urte "txarra" izan zalako hileroko bilakaeran. Dana dala, kontuz ibili gura izan dau, eta erreferentzia moduan abuztuaren itxierako datuak hartu –irailaren erdialdean jasoko diran datuak–, Finantzen Euskal Kontseiluan 2017. urtearen itxieraren aurreikuspen zorrotzagoa egiteko. Dana dala, urteko lehenengo hiru hilebeteetan, urte honetarako aurrekontu osoaren "ia %26a" batu da. Aurrekontua "6.990,9 milioikoa" da.

Aldundiko arduradunak, Talde Mistoak eskatu dauen agerraldian, zerga garrantzitsuenetako batzuek urtarrila eta martia artean izan daberen portaera zehaztu dau. Holan, igoerak zerga honeetan emon dira: "%3,1" PFEZean, "%2,4" BEZean eta "%0,6" Ondarearen eta Ez Egoiliarren Zergan. Zerga Bereziak "%3,1ko" igoera izan dabe, "%8ko" igoera izan dauen Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziari esker, batez be. Eta aldaketa nagusia Soziedadeen Zergan hauteman da, "%138ko" hazkundera izan dauelako, "diru-bilketa gordinaren igoerak eta itzulketen jatsiera garrantzitsuak" bultzatuta, lurralde komuneko arautegiaren mende dagozan enpresetan.

Batzarretako talde batzuek, Talde Mistoak eta PPK, besteak beste, bat egin dabe diputatu jaunagaz, lortutako datuen aurrean "zuhurtzia" eskatzeko orduan. Javier Ruiz popularren bozeroaleak adierazo dau, ekonomiaren "aldakortasuna" kontuan izanda, "zuhurtziaz" jokatu behar dala, datuek, "aurreko urteetako joerea apurtzen dala" erakusten dabela "emoten dauen arren". Bizkaiak Espainiako ekonomiaren portaera "onaren" "olatua hartu dau". EH Bilduk, alderaketea, diru-bilketaren ikuspuntutik "txarra" izan dan "2016. urteagaz" egiten dala azpimarratu dau.

Sozialisten aldetik, %10ekoa datu "positiboa" dala uste dabe, eta horrek erakusten dau "ze garrantzitsua" izan zan 2013ko erreforma fiskala, diru-bilketea handitzeko. Jesus Lekerikabeaskoa jeltzaleak, bere aldetik, ez dau balorazinarik egin gura izan, eta iraileko datuak argitaratu arte itzaroteko eskatu deutse gainerako taldeei, balorazinoa egin aurretik. Igaz, datuak negatiboak ziranean, adierazo eben moduan, EAJ-PNVtik ez gara "lehenengo hiruhileko datuakaz balorazino bat egiteko gai", esan dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“DOIKUNTZA” FISKALAK “IRAILEAN”

Beste alde batetik, beste agerraldi batean, Soziedadeen Zergaren aldaketa posiblearen eta horrek diru-bilketan izango leuken eraginaren gaineko “xehetasunak” eskatuko deusaz PP taldeak. Iruarrizagak, apirilaren 27an egin zan batzorde batean esan ebana gogorarazo dau. Bertan, hiru aldundiak “alkarlanean” dabilzala jakinarazo eutsen Bizkaiko Batzarretako taldeei, zergen inguruko neurrien arauzko aldaketea diseinetako, gaur egungo zerga esparrua “doitzeko eta hobetzeko”. Aldaketa hori “irailean” aurkeztuko da. Batzar Nagusietan eztabaidea hasteko “unea” izango da, adierazo dau.

Bukatzeko, saioko azkenengo puntuan, Kupoaren inguruan lortutako akordioak Bizkaiko aurtengo aurrekontuetan izango dituan “ondorioen” inguruan galdetu deutso EH Bilduk. “Gaur egun ezinezkoa da ondorioak kalkuletea”. Dana dala, Ogasuneko teknikariek egin dituen lehenengo kalkuluak kontuan izanda, Bizkaiak “25,4 milioi” gehiago ordaindu beharko ditu. Iruarrizagak adierazo dauenez, seguruenez, azkenean eragina, zenbateko hori “baino txikiagoa” izango da, eta aurrekontuek “ezelango arazo barik barneratu” ahal izango dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/05/2017

La Diputación "mantendrá" la previsión de ingresos para 2017 pese al incremento del "10%" experimentado durante el primer trimestre

El diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha querido trasladar hoy a los grupos junteros un mensaje de "prudencia" en relación a la evolución de la recaudación para este año, cuyas previsiones presupuestarias alcanzan para todo 2017 un incremento del 3,8%, y en los tres primeros meses del año este alza se ha situado en el "10%". La hacienda vizcaína ha recaudado en los tres primeros meses del año "1.811,4 millones de euros", lo que supone "164,9 millones más" que en el mismo periodo del año pasado cuando se recaudaron "1.646 millones", según los datos ofrecidos esta mañana en la Comisión de Economía y Hacienda de Juntas Generales de Bizkaia.

Iruarrizaga ha señalado que los números de estos primeros meses suponen una "tendencia más equilibrada" respecto a la evaluación recaudatoria de 2016, año "malo en su evolución mensual", aunque ha querido ser cauto y tomar como referencia los datos de cierre del mes de agosto –obtenidos a mediados de septiembre– que servirán para hacer una previsión más certera del cierre de 2017 en el Consejo Vasco de Finanzas. En cualquier caso, en los tres primeros meses del año se ha recaudado "casi el 26%" del total del presupuesto para este año que se eleva a "6.990,9 millones".

El responsable foral, en una comparecencia pedida por el grupo Mixto, ha detallado cuál ha sido el comportamiento de los impuestos más importantes entre enero y marzo. Así, las subidas se han cerrado con las siguientes magnitudes: un "3,1%" en el IRPF, un "2,4%" en IVA y un "0,6%" en Patrimonio e Impuesto de No Residentes. Los Impuestos Especiales crecen un "3,1%" gracias fundamentalmente al Impuesto Especial sobre Hidrocarburos que gana "un 8%". Y la gran variación se ha detectado en el Impuesto de Sociedades con un alza del "138%" empujado por el "aumento de la recaudación bruta y una disminución importante de las devoluciones" en empresas que se encuentran bajo normativa de territorio común.

Algunos grupos junteros, como el grupo Mixto y el PP, se han alineado con el diputado en pedir "prudencia" por los datos obtenidos. El portavoz de los populares, Javier Ruiz, ha dicho que debido a la "volatilidad" económica hay que ser "prudentes", aunque los datos "parece" que indican que "se rompe una tendencia de años anteriores". Bizkaia "ha cogido la ola" del "buen" comportamiento de la economía española. Por su parte, EH Bildu se ha referido a que la comparación llega con un "2016" que ha sido "malo" desde el punto de vista de la recaudación.

Desde las filas socialistas, consideran el 10% un dato "positivo" que viene a demostrar "lo importante" que fue la reforma fiscal de 2013 para aumentar la recaudación. Por su parte, el jeltzale Jesús Lekerikabeaskoa no ha querido hacer una valoración y ha pedido al resto de grupos que esperen a conocer los datos de septiembre para hacerla. Como ya advirtieron el año pasado cuando los datos eran negativos, desde el PNV "somos incapaces de hacer una valoración con los datos del primer trimestre", ha dicho.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“AJUSTES” FISCALES “EN SEPTIEMBRE”

Por otro lado, en otra comparecencia, el PP ha pedido al diputado “detalles” sobre una posible “reforma” del Impuesto de Sociedades y su impacto en la recaudación. Iruarrizaga se ha referido a lo dicho por él mismo en una comisión celebrada el 27 de abril cuando informó a la Cámara vizcaína de que las tres diputaciones trabajaban “conjuntamente” en diseñar una modificación normativa de medidas tributarias para “ajustar y mejorar” el marco tributario actual que será presentada “en septiembre”. Será “el momento” para iniciar el debate en las Juntas Generales, ha advertido.

Por último, EH Bildu le ha preguntado a Iruarrizaga, en el último punto de la sesión, por las “consecuencias” que tendrá el acuerdo logrado con el Estado en torno al Cupo en los presupuestos de Bizkaia de este año. “A fecha de hoy no es posible calcular sus efectos”, aunque según los primeros cálculos realizados por los técnicos de Hacienda, Bizkaia deberá pagar de más “25,4 millones”. Iruarrizaga ha señalado que finalmente el impacto será probablemente “menor” a este importe y podrá ser “absorbido perfectamente” por los presupuestos.